

Neska-mutilek igandera arte izango dute gabon postala egiteko aukera Erandion

Bosgarren urtez, postal lehiaketa antolatu dute Erandioko liburutegiek, udalerrian erroldatuta dauden edota bertan ikasten duten neska-mutilei zuzenduta. Gaia Gabonak izango dira eta, haurrek, tamainako kartoi mehean marraztu beharko dute nahi dutena. Horrenbestez, hiruna sari egongo dira adin kategoria (6-7, 8-10 eta 11-12 urte bitartekoak) bakoitzeko: 130, 100 eta 70, hurrenez hurren, liburu edota ikasmaterialetan. Gainera, irabazle suertatutako postaletako baten kopia mordoa egin eta Erandioko ume guztien artean banatuko dituzte. Lanak azaroaren 25a baino lehen eraman beharko dira Altzaga (Jesus Aranburu 6-8) edo Astrabuduako (Josu Murueta plaza) udal liburutegietako batera.